



ORIOK OUDALA

Euskaraz
bizi-bizi

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2020ko ekainaren 25a, osteguna

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxea

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:30 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:00

BERTARATUAK:

Alkatea

Anuska Esnal Oriden

Zinegotziak

Ainara Munduate Iguaran, Xabier Ibarguren Azkue, Beñat Solaberrieta Albizu, Bakarne Oriden Albeniz, Bittor Andres Alkorta, Lourdes Salsamendi Goñi, Andoni Torres Fernandez, Jon Basurko Sarasua, Amaia Gozategi Urbieto, Jose Javier Gomez de Segura Arce, Ana Prieto Merchan eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Gai-zerrenda

- 1.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, udalbatzarraren 2020ko maiatzaren 28ko ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.



- 2.- Gai honen berri ematea: aurrekontuaren exekuzioaren egoera 2020ko lehen hiruhilekoan.
- 3.- Onartzea, egoki bada, 1/2020 zenbakidun konpromiso-kreditua.
- 4.- Onartzea, egoki bada, finka honen salerosketa Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari: Orioko Arau Subsidiarioetako "Munto" 8. sektoreko exekuzio-unitatea birpartzelatzeko proiektuaren ondoriozko partzelen zerrendako "P.R./2" erreferentzia duen finka urbanoa.
- 5.- Onartzea, egoki bada, Orioko herriko energia-plana.
- 6.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAREN 2020KO MAIATZAREN 28KO OHIKO BILKURAKO AKTAREN ZIRRIBORROA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, inork inolako oharrik egiten ez duenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira, **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA Udalbatzarrak 2020ko maiatzaren 28an egindako ohiko bilkurako akta.

2.- GAI HONEN BERRI EMATEA: AURREKONTUAREN EXEKUZIOAREN EGOERA 2020KO LEHEN HIRUHILEKOAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Diru-sarreretan, %35,37 exekutatu da (2019ko lehen hiruhilekoan, %32,12); gastuetan, berriz, %13,68 exekutatu da (2019ko lehen hiruhilekoan, %11,42).

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, 1/2020 ZENBAKIDUN KONPROMISO-KREDITUA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala batzordeak 2020ko ekainaren 24an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU**



ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA 1/2020 zenbakidun konpromiso-kredituari. Konpromiso-kredituaren zenbatekoa, guztira, 163.712 eurokoa da eta Orioko Herri Ikastolaren fatxada berritzeko lanei dagokie: 81.856 euro 2020ko udal-aurrekontuaren kargura izango dira eta beste horrenbeste, 81.856 euro, 2021eko udal-aurrekontuaren kargura.

2.- Espedientea JENDAURREAN JARTZEA, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Aginduan ezarritakoa betez, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Kontu-hartzailletza departamentua.

b) Agiriak aztertu eta erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

c) Aurkezteko bulegoa: Udaletxeko sarrera-erregistroa. Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 16.4. artikulua adierazitako gainerako lekuetan ere aurkeztu daitezke erreklamazioak.

d) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendaurreko epea amaitu eta erreklamaziorik aurkezten ez bada, espedientea behin betikoz onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Emandako botoa azaltzeko, alkateak hartzen du hitza eta adierazten du Orioko Herri Ikastolaren fatxada berritzeko obren finantzaketa 4 urteko prozedura negoziatu baten bidez gauzatu dela. Prozedura horretan, Orioko Herri Ikastolak obraren gastuen %40 finantzatu du, eta Orioko Udalak, berriz, %60. Gaurko erabakiaren bidez, Orioko Herri Ikastolari bi aurrekontu-ekitalditan ordainduko zaio obra finantzatzeko falta dena: 1. eta 2. faseetako gastuen BEZa eta obraren 3. eta 4. faseetako gastuen %60. Orioko Udalak, guztira, 163.712 euro jarriko ditu.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, FINKA HONEN SALEROSKETA EUSKO JAURLARITZAKO INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILARI: ORIOKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO "MUNTO" 8. SEKTOREKO EXEKUZIO-UNITATEA BIRPARTZELATZEKO PROIEKTUAREN ONDORIOZKO PARTZELEN ZERRENDAKO "P.R./2" ERREFERENTZIA DUEN FINKA URBANOA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Orioko udalbatzarrak erabaki hauek hartu zituen, besteak beste, 2019ko azaroaren 28an egindako ohiko bilkuran:



1.- ONARTZEA lankidetza-hitzarmena, Eusko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren eta Orioko Udalaren artean izenpetuko dena, Orioko udalerrian, "Munto" izeneko 8. sektorean, alokairuko babes ofizialeko etxebizitzak sustatzeko.

2.- AHALMENA EMATEA alkateari hitzarmen hori sinatzeko, Orioko Udalaren izenean.

Aipatutako lankidetza-hitzarmena 2020ko urtarrilaren 8an sinatu zen.

Lankidetza-hitzarmenaren 2. klausulak honela dio, hitzez hitz:

Orioko Udalak aipatutako Orioko 8. Sektoreko (Munto) PR2 partzela Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari kargarik gabe saltzeko hitza ematen du, dagokion akordioaren bidez.

Eragiketa honi dagokionez, partzelaren balioa BOSTEHUN ETA BERROGEITA BAT MILA LAUREHUN ETA HOGEITA LAU EURO ETA HAMAR ZENTIMOKOA (541.424,10 €) da, BEZik gabe. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak salerosketa eskrituretan jasotzen den unean egingo du ordainketa.

Klausula honetan aurreikusitako ondare-eragiketa eskritura publikoan formalizatuko da, adierazitako salerosketa baimentzen duen Jaurlaritzaren Kontseiluaren erabakiaren egunetik zenbatzen hasi eta sei hilabeteko epearen barruan.

Lankidetza-hitzarmenaren 3. klausulak honela dio:

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak hurrengo konpromisoa hartu du, besteak beste:

- Obra bukatu eta gero, doan lagako dio Orioko Udalari lursailean egongo den eraikinaren behe solairuko lokal baten erabilera. Lokalak gutxi gorabehera 400 metro karratu izango ditu, egokitu gabe lagako da eta bere erabilera ekipamendu publikorako izango da. Hartara, dagokion lagapena izapidetuko du aplikagarri den araudian xedatutakoaren arabera.*

Aipatutako jardueretatik ondorioztatzen diren gastuak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak ordainduko ditu.

Halaber, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak ordaindu beharko ditu aipatutako finka eskuratzeari lotutako ondare-eragiketa Jabetza Erregistroan inskribatzearen eta eskriturak egitearen ondoriozko gastuak, hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga salbu.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, 2020ko urtarrilaren 8an sinatutako lankidetzaz hitzarmenean ezarritakoa betez, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- ONARTZEA finka honen salerosketa Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari: Orioko Arau Subsidiarioetako "Munto" 8. sektoreko exekuzio-unitatea birpartzelatzeko proiektuaren ondoriozko partzelen zerrendako "P.R./2" erreferentzia duen finka urbanoa. Salerosketa goian azaldutako terminoetan egingo da.

2.- AHALMENA EMATEA alkateari salerosketako eskritura publikoa sinatzeko, Orioko Udalaren izenean.

5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO HERRIKO ENERGIA-PLANA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Orioko herriko energia-planaren sarrerak honela dio, hitzez hitz:

1. AURKEZPENA

Energiaren kudeaketak ingurumenean eta herritarren eguneroko bizitzan eragin handia duela eztabaida ezina da gaur egun. Energiaren kostua handitzeak, ondorio ekonomiko eta sozialak eragiten dituen moduan, gure planetan ematen ari den berotze globalak, jatorri fosila duten energiekiko gero eta mendekotasun txikiagoa izatea eskatzen digu eta, aldi berean, eskariari egokitutako eredu energetikorantz aldaketa urratsak egitera behartzen gaitu.

Energiaren kostua Administrazio Publikoen aurrekontuetako zati handi bat denez, beharrezkoa da energia kontsumoa murrizteko modu eraginkorrek garatzea. Administrazioek, gainera, ahalmena dute energia horniduran eragiteko, sistema eraginkorragoen alde egiten duten erabakiak eta energia berriztagarrien erabilerak energiaren tokiko ekoizpena susta dezakete, modu honetan munduko beste leku batzuetan dauden baliabide energetikoekiko mendekotasuna murriztea lortuz.

Europar Batasunak klima eta energiaren inguruan 2030 urterako finkatuta dituen helburuak oinarritzat hartuz, Energiaren Euskal Erakundeak, Euskal energia sistemaren epe luzerako ikuspegia zehaztuta du. Eredu sozioekonomikoaren bilakaera progresiboa beharrezkoa izango da, bereziki industria, eraikin eta garraioari dagokionez, energia kontsumo txikiagoko eredu berri baterantz, kontsumo hau pixkanaka energia berriztagarriak txertatzera bideratuz eta energia sektore nagusi gisa energia elektrikoa erabiliz. Epe luzera helburu nagusiak ondorengoak direlarik:



- 2050. urterako energia erabileratarako petrolioaren kontsumoa nulua izatea, gaur egungo garraio sistemaren egitura aldaketa eskatzen du honek.
- 2030. urtean berotegi efektuko gasen isurketak gutxienez %40 murriztea 2005 urteko datuekin alderatuz.
- 2050. urtean berotegi efektuko gasen isurketak gutxienez %80 murriztea 2005 urteko datuekin alderatuz.
- Mende honetan zehar kontsumo energetikoaren %100 energia berriztagarrien bidez lortzea eta berotegi efektuko gasen isurketa netoak desagerraraztea.

Tokian tokiko ekintzak funtsezkoak dira Euskal politika energetikoan ezarritako helburu guztiak lortzeko. Tokiko administrazioek energia eskarian eragin zuzena izan dezakete energia kontsumoa kudeatuz, baina baita zeharka ere, azken erabiltzaileei energia modu eraginkorragoan nola erabil dezaketen jakinaraziz eta motibatuz.

Ildo horretatik, udal baten Energia plana datozen urteetarako udal energia kontsumoarekiko estrategia bat zehazten saiatzen da: egin beharreko inbertsioak definituz, inbertsio horiekin lortutako aurrezte energetiko eta ekonomikoak estimatuz eta berreskuratze epeak zehaztuz. Energia-kontabilitate argia eta zehatza oinarri hartuta, ezarritako helburuak eta benetako aurrezteak egiaztatzeko aukera ematen du.

Plan Energetiko egoki batek onura asko ekar diezazkioke udal bati:

- Energia aurrezteko neurriak lehentasun plan baten arabera ordenatuak izatea, sor ditzaketen aurrezte ekonomikoen arabera adibidez.
- Faktura energetikoen urteroko igoera dela eta, udal aurrekontuak prestatu eta doitzeko orduan tresna fidagarria izatea.
- Energiaren inguruko aurrekontuak planifikatuak izatea.
- Egin beharreko inbertsioen antolakuntza hobea eta erakunde ezberdinek (energiaren Euskal Erakundea, IDAE, etab.) ematen dituzten dirulaguntza hobeak lortzeko aukera izatea.

1.1. PROIEKTUAREN IRISMENA

Plangintza Energetiko honen irismena Orioko udal ekipamenduetara mugatuko da, hau da, eraikin eta instalazio publikoetara. Ekipamendu horien kudeaketa energetikoa Orioko Udalari dagokion heinean, Udalak arlo horretan esku hartzeko



ahalmen handia du. Kontsumo energetikoen murrizketan eragin zuzena izan dezake, aldi berean eraginkortasun energetikoan hobekuntzak ekarriz eta energia iturri alternatiboak txertatuz.

Hauek dira proiektu honetan aztertu diren eraikinak eta instalazioak:

1. Taula Orioko Energia planaren barruan aztertutako eraikin eta instalazio ezberdinak

ERAIKINA/INSTALAZIOA
ARGITERIA PUBLIKOA
KARELA KIROLDEGIA
UDAL KANPINA
UDALETXEA
ZAHARREN BABESLEKUA
MARIA MAESTRA HAURRESKOLA
ARRAUNETXE TEKNIFIKAZIO ZENTRUA
MENDIBELTZ FUTBOL ZELAIA
ZARAGUETA ESKOLA
AZURZA ETXEA
KULTUR ETXEA
DANBOLIN MUSIKA ESKOLA
ITURRIAGA JAUREGIA
HONDARTZAKO KABINAK
LUDOTEKA
AMETSA GAZTELEKUA
FRONTOIA
SALATXO
IGOGAILU PUBLIKOAK
KOSTA TAILERRA
ETXELUZE GAZTETXEA
KOMUN PUBLIKOAK
BRIGADAREN PABILOIA
LOKAL EZBERDINAK
GUZTIRA

Aurreko taulan agertzen diren Orioko eraikin eta instalazio publiko guztiak aztertu badira ere, esan beharra dago, kontsumo energetiko handiena duten eraikin eta instalazioek xehetasun eta sakontasun maila handiagoko azterketa jasan dutela.

1.2 HELBURUAK



Dokumentu honetan aurkezten den Orioko Udalaren Energia planaren helburu nagusiak ondorengoak dira:

- Orioko eraikin eta instalazio publikoen gaur egungo diagnostikoa ezagutzea eta aztertzea. Gaur egungo kontsumo energetikoak identifikatzea funtsezkoa da energiaren inguruan etorkizun hurbilerako plangintza zehatz bat finkatzeko garaian.*
- Gaur egungo errealitatera egokituko den Energia plana definitzea. Udaleko politikarientzat erreferentzia garrantzitsua bihurtuko da hurrengo urteetarako, eta aldi berean udaleko zerbitzu teknikarientzat kudeaketa tresna eraginkorra izango da.*

Plangintza energetiko hau aurrera eramateak Orioko eraikin eta instalazio publikoetako kontsumo energetikoak kontrolatzea eta murriztea ahalbidetuko du. Aldi berean, kontsumo hauek eragindako berotegi efektuko gasen isurketak ere murriztea lortuko delarik.

Bestalde, kontsumo energetikoaren murrizketak faktura energetikoen murrizpena ere ekarriko du. Zuzenki ez bada ere, proposatutako neurri ezberdinak aplikatzearen ondorioz, elektrizitatearen kasuan, instalatutako potentzia murriztea ekarriko duenez kontratu elektrikoetan fakturatutako potentziaren optimizazioa ere ekar dezake, modu honetan gaur egungo egoerarekiko aurrezte ekonomikoak areagotuz.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Ingurumena, Obra eta Zerbitzuetako batzordeak 2020ko ekainaren 17an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA Orioko herriko energia-plana, Haritz Jauregi ingeniariak idatzi duena Efizientzia&Arkitektura ingeniari-tza-sozietatearen izenean.

6.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Alkateak hartzen du hitza, oriotarrei lasaitasun-mezua zabaltzeko, azken egunotan Orioko udalerrian izan den COVID-19aren berragertzea dela eta. Adierazten du 50 PCR proba egin direla herritarren artean eta guztien emaitza negatiboa izan dela. COVID-19a detektatzeko probetan positibo eman dutenak bi familiako kideak dira, bi etxebizitza zehatzetan kokatuta daudenak eta kontrolatuta daudenak. Positibo eman duten pertsonak zorrotz ari dira betetzen Osakidetzak dekretatutako konfinamendua, beren etxeetan eta horretarako prestatutako zentroetan. Bukatzeko, adierazten du oriotarrek orain arte bezala jarraitu behar dutela zorrotz betetzen indarrean dagoen araudiak ezarritako segurtasun-, higiene- eta osasun-neurriak.



ORIOKUDALA



Ez zen eskari eta galdera gehiagorik izan.

Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratutako pertsonetako inork hitza hartu ez duenez, alkateak eskerrak ematen dizkie etorritako guztiei eta bilkurari amaiera ematen dio. Erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,